

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

260/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (220/20 zenbakiko prozedura laburtua) izapidetzen ari da; 16248388 nortasun-agiria duen pertsonak aurkeztu zuen errekurtsoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 15ean hartutako erabaki baten aurka, zeinaren bidez Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86., 87., 88. eta 89. artikulua aldatu baitziren, baita Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2020ko maiatzaren 28an emandako ebazpenaren aurka ere, zeinak erretiro-sariak ordaintzea ezesten baitu. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezkeen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikulua ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 19an

Udal legelaria

AMAYA ALFONSO ACEBO